

Balorezko proposamena

Planeteren lehentasuna bezeroak dira, haien beharrak asetu eta norberaren egoera ekonomikora egokitutako zerbitzuak eskeintzea bilatzen bait dugu. Gure enpresak zenbait familien eskutan ez dauden ondasunak eskuratzeko aukera ematen du, beste ondasun batzuen trukaketaren bitartez edo pertsonalizatutako alokairuaren bitartez. Horrela, familiek aukera izango dute merkatu arruntean erosi ezin ditzaketen ondasunak eskuratu ditzakete. Horretaz gain, ondasunei bigarren bizitza bat emateko tailerrak antolaten ditugu. Ondasunak berriztu, birziklatu eta konpontzeko formakuntza eskeintzen dugu.

Planet-en uste dugu objektu garestiak ez direla mugatu behar, egoera ekonomiko txarra dutenengan pentsatzen dugu. Planet-en gizartearentzat beharrezkoak diren askotariko gauzak alokatzen espezializatuta dago (tresnak, etxetresna elektrikoak, etxeko gauzak...) Baina ez dugu alokatzen soilik. Enpresak dohaintza programak ezarri ditu, bezeroei gehiago behar ez dituzten elementuak ematen dituztenean, guk GKEei ematen diegu, behar duten familiei lagunduz eta gizarte bidezkoagoa eraikitzen lagunduz.

Enpresak harro dago bere denda fisikoetan josteko tailerrak eskaintzeaz, komunitateari trebetasun praktikoak eta sortzaileak ikasteko aukera eskainiz. Tailer hauek arropa zaharrak konpontzen eta berritzen irakasteaz gain, norberaren sormena eta irudimena garatzen laguntzen diegu. Arropa zaharra, baztertu beharrean, berritu eta modan jarriko ditugu. Arropa zaharrak berritzea ez da inoiz hain dibertigarria eta ekologikoa izan!

Bai, badakigu produktuak garraiatzeko garraioak behar ditugula, baina kutsadura murrizteko konpromisoa hartzen dugu. Arazo bakoitzerako, konponbide bat izaten saiatzen gara! Hainbeste kutsadura saihesteko garraio elektrikoak erabiliko ditugu eta denda fisikoak izango ditugu Espainian zehar.

Hasteko denda bat izango dugu Madrilen. Baina ziur gaude negozioa hazi egingo dela, beraz, dena ondo badoa, geroago Bilbon eta Bartzelonan ere jartzeko asmoa

dugu. Hiri hauek estrategikoki aukeratu ditugu, ikerketa batzuen arabera bigarren eskuko erosketa gehien egiten duten hiru hiriak direlako. Eta negozioa nola doan arabera, zabaltzea edo ez erabakiko dugu. Denda fisikoak irekitzea erabaki dugu, hainbat arrazoirengatik. Arrazoi horietako bat Internet bidez erositako produktuak entregatzeak biltegietatik azken helmugara (bezeroarengana) garraiatzea izan beharko zen. Denda fisikoek ingurumenaren kutsadura murriztu dezakete. Gainera, tailerrak eskainiko ditugunez, gure produktuetatik gertu egotea nahi dugu. Joskintza tailerrekoek arropa berritzen lagundu ahal digutelako.

Beste aldetik badakigu bizitza modernoak batzuetan erosotasuna eskatzen duela. Horregatik, zure eginkizuna aro digitalera eraman dugu olineako denda batekin. Orain, gure katalogora sar zaitezke zure etxetik eroso.

Badakigu elkartasunaren eta gizarte-erantzukizunaren garrantzia; Enpresak borondatez lan egiten du GKEekin gure eragin positiboa zabaltzeko. Gauzak eskaintzeaz gain, zorte gutxiago duten familien oinarrizko beharrei erantzun nahi diegu, bizi-kalitatea hobetzea eta egoera ahulean dauden gendeari aukerak ematea.

Gure kontratazioan ere helburu bat dugu. Ez da lanpostuak betetzea bakarrik, benetan behar dutenei aukerak eskaintzea baizik. Lana aurkitzeko zailtasunak dituzten eta benetan nahi eta behar duten pertsonen harremanetan jartzen eta enplegua eskaintzen diegu. Horrela, enpresa aldaketa sozialaren sustatzaile bihurtzen da.

Mentalitateak ere aldatu nahi ditugu, ez soilik produktuak. Gehiegizko kontsumoaren eragin negatiboak buruz ekitaldiak eta kanpainak antolatzen ditugu. Helburua argia da: bizimodu kontzienteago eta iraunkorragoa sustatzea. Batzuetan, benetako iraultza gure buruan hasten da.